

3. Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioa

3.1. Zer da Kontsortzioa?

Erakundeen arteko entitatea da, berezko nortasun juridikoa duena eta euskal administrazioak 1986an sortua. Bizkaian eta Araban, antzeko beste bi kontsortzio daude, beste programa batzuk egiten dituztenak.

Kontsortzioak bereziki hezkuntzako ingurune konpentsatzaileak sortu eta garatzen ditu. Ingurune horiek gai izango dira ezberdintasuna haien baitan hartzeko, eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteek heldutasuna lortu arte betebeharrak eta eginkizun guztiak egin ditzaten, gaitasun, ezagupen eta jarreraren lorpena bultzatzeko; halaber, haien emantzipazioa sustatzeko, eta adingabe eta gazte horiek haien kultura bizitzari eta aldatuz, autore papera har dezaten indartzeko.

Hortaz, desabantaila edo baztertzeko soziala¹ jasaten duten adingabe eta gazteek (arrisku egoeran daudenek, alegia) normalizatuak (herriar guztientzat) ez diren hautabidezko ingurune konpentsatzaileak izan ditzaten esku hartzen du.

Beti, halere, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak zerbitzu eta baliabide normalizatuak igarotzea bultzatuz; horretarako, dauden baliabideak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriak egokitzen eta normalizatutako eta egokitutako baliabideak sortzen saiatzen da.

Helburu bera izanda, kulturen eta gizartearen eraldaketarako esku hartu dezake (balore eta kultura erreferentziak, tolerantzia eta ezberdintasuna errespetatzea, gizarte eginkizun berriak sustatzea eta betebeharrak birbanatzea, e. a.).

Horretarako, gizarteratze eta heziketa konpentsatorioan adituak diren profesionalak daude Kontsortzioan, zerbitzu sistematarako edo sistema horietatik lan egin dezaketenak (gizarte, osasun, hezkuntza, kultura zerbitzuak, e. a.); Kontsortzioak, bestalde, eskarmentu handia dauka gizarteratzean eta heziketa konpentsatorioan, eta ikerketak, programa berrizale eta argitalpenak sustatzen ditu arlo horretan.

Horrez gain, Kontsortzioan parte hartzen duten sistemen ohiturak, ikuspuntuak eta ekarpenak hartzen ditu (hezkuntzakoak, gizarte zerbitzuak, kulturakoak). Kontsortzioan sentikortasun sozial handiko estamentuak ari dira elkarlanean koordinatuta, eta horri esker erakundeen arteko eskuartzeari ekiten zaio bikoiztasuna eta protagonismoa baztertuta, baliabideen errentagarritasun handia lortuta eta diagnostiko eta eskuartzearen ikuspegi ezberdinak emanda.

Ildo horretan, hortaz, sistemen arteko lankidetzak –goitik eta behetik eginda– bultzatzeko inguru aproposena da, hezkuntza zein gizarteratze arloetan.

¹ Etorkizunean, esku hartzea beste adin batzuetara zabaltzeko arren (bizitza osoan zehar ikastea), gaur egun Kontsortzioak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen kasuan esku hartzen du.

3.2. Kontsortzioa osatzen duten erakundeak

Kontsortzioa Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute (% 50na). Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria Hezkuntza Saila da. Aldundiaren aldetik, Gizartekintza eta Kultura Departamentuek eta Gazteria Zerbitzuak parte hartzen dute.

Kontsortzioak organo nagusi bat dauka Gobernu Batzordea deritzona. Gobernu Batzordearen presidentea Hezkuntzako sailburua da (eta haren ordezkaria, Gipuzkoako Hezkuntzako lurralde ordezkaria), presidenteordea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzako diputatua, eta batzordekideak, berriz, Hezkuntza Saileko bi (Pedagogia Berriztapeneko burua eta Eusko Jaurlaritzako Osabidezko Hezkuntzako Zerbitzu burua), eta Gipuzkoako Foru Aldundiko beste bi (Gazteria eta Kiroleko diputatua eta Euskara eta Kulturako diputatua).

3.3. Kontsortzioaren ekintzen hartzaileak

- Baztertze edo desabantaila egoeran, hau da, moldagabezia arriskuan dauden **adingabe, gazte eta familiak**.

Baztertze, desabantaila, arrisku eta moldagabezia kontzeptuak

“Baztertze egoerak” gertatzen dira hainbat arrazoi direla eta, pertsona lan merkatura sartzen ez denean; etxebizitza, osasuna, kultura eta hezkuntza eskuratzetik ez duenean; normalizatutako baliabide sareetara (herriar guztientzat direnak) eta harremanetako sare informaletara iristerik ez duenean... Hau da, alor horietatik guztietatik “kanpo” geratzen denean.

Gizartetik baztertze prozesuak, eta horien ondorioz sortutako baztertze egoerak, desabantailan dauden pertsonen eta kolektiboek –talde ahulenei– pairatzen dituzte, zenbait ezaugarri pertsonal direla eta (adina, sexua, minusbaliotasuna, gaixotasuna, gutxiengo etnikoren batekoa izatea, ...), edota gizarte eta familiako zenbait ezaugarri direla kausa (guraso bakarreko familiak, familia-desoreka, tratu txarrak, abandonua, langabezia, diru sarrera eskasak, ...). Esku hartzea bidezkoa den ala ez erabakitzeke orduan, garrantzitsua da banakoaren ahultasunak oinarri pertsonala edo gizarte eta familiako oinarria daukan jakitea.

Argi dago, nolanahi ere, desabantaila egoeran dauden guztiek beren egoerari aurre egiteko dituzten baliabideak ezberdinak direla. Horrela bada, ahultasuna erantsitako faktorea da eta, esku hartzeke orduan, lehentasunak eman ditzake; baina, kasu gehienetan, baztertze egoerak behintzat egiaztatu behar dira.

Pertsonaren ahultasuna eta pertsonak baztertze egoerei aurre egiteko dituen euskarriak, berriz, irizpide dira esku hartzeari lehentasuna emateko.

Esku hartzea zuzendua izango da, bereziki, sare informalean (familia nuklearra eta zabala, lagunak, e. a.) laguntzarik ez duten eta baztertze egoeran dauden –eta, beraz, ahultasun handiagokoak diren– pertsonen.

Pertsona minusbaliatua izateaz gain, familia desorekatua bada, familiako norbait gaixo badago, diru sarrera eskasa bada, e. a., eta baztertze egoerekin batera laguntzako sare informalean babesik ez badauka eta moldagabeziako jarrerak erakusten hasia bada, esku

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

hartzea ezinbestekoa izango da. Pertsonak minusbaliotasuna bai, baina gainontzeko baldintzak betetzen ez baditu, esku hartzea ez da egokia izango (Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren ikuspuntutik).

Arrisku egoera (moldagabezia) kontzeptua, hortaz, baztertze egoera objektiboei zein ahultasun egoerak² definitzen dituzten determinatzaileei lotuta dago.

Baztertze egoerek pertsonarengan zuzenean dute eragina; familia egoera, aldiz, ingurunearen zatia da, eta ahultasuna edo desabantaila egoera definitzen duen determinatzaile espezifikotzat hartzen dugu.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren inguruan, bi bereizketa egin ditugu: arrisku handiko eta ertaineko egoerak, alde batetik, eta arrisku gutxiko egoerak bestetik, adingabeak edo gazteak baztertze egoera jasaten duen ala ez kontuan hartuta.

Izan ere, Ingurune Irekian esku hartzeko Programaren helburu nagusia adingabe eta gazteak normalizatutako eta egokitutako baliabideetan (bir)txertatzea baita. Hau da, baztertze prozesua alderantzizkatzea, gizarteratze prozesuak bultzatzea eta, beraz, esku hartzea arrisku handi eta ertainean dauden adingabe eta gazteei zuzentzea. Esku hartzea, hortaz, baliabide normalizatuera iristeko eta horietan txertatzeko zailtasunak dituzten pertsona eta kolektiboei zuzendua da, edota baliabide horietatik baztertuak izan direnei –bai alde batera utziak izan direlako, bai txertatu ez direlako.

Arrisku egoerek (baztertze edota desabantaila), jakina, pertsonarengan eragina dute. Horrela, pertsonak ez du lan merkatura iristeko behar den gaitasuna lortuko, bere buruari buruzko iritzi negatiboa izango du, astialdirik gehiena kalean, jarduera baikorrik egin gabe emango du, ez du informaziorik izango, e. a., edo moldagabeziako portaerak garatuko ditu.

Aurrerago aurkeztuko dugun adierazle sistemak aintzat hartzen ditu baztertze eta ahultasun egoerak nahiz adingabe edo gazteen beraien alderdiak, gehienetan bizi dituzten arrisku egoeren isla direnak –moldagabeziako portaerak barne.

Pertsonak moldagabeziako portaerak erakusten dituenean (lapurretak eta ebasketa txikiak, drogen kontsumoa edota salmenta, erantzun erasokorrak, adinari edo egoera pertsonalari egokitzen ez zaizkien sexu portaerak, e. a.), kasu gehienetan baztertze egoera

² Aipatutako kontzeptu bakoitzaren deskribapena Cesar Manzanosek bere doktoretza tesian egindako sailkapenean oinarritzen da, xehetasun batzuk gora-behera:

Baztertze egoera objektiboak (enplegu, informazio, kultura, osasun sistemak, e. a., eskuratzerik ez izatea)

Determinatzaileak eta talde ahulak

- Determinatzaile unibertsal – denborazkoak: guztiongan dute eragina, noizbait gure bizitzan (txikia, heldua izatea)
- Determinatzaile kronikoak (minusbaliotasun kronikoak, sexua, gutxiengo etnikoren batekoa izatea)
- Determinatzaile espezifikoak (elkarbizitza unitatearen gizarte eta ekonomiako baldintzak, prestakuntzan gabezia izatea, deseskolarizazioa eta eskola absentismoa, atzerapena eta eskolako porrota, e. a.)

Marjinazio egoera zailak (drogamenpekotasuna, delinkuentzia, e. a.)

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

orokorrak egoten dira, baina ez bereziki. Argi dago baztertze edota desabantaila egoerak pairatzen ez dituzten zenbaitek ere moldagabeziako portaerak izaten dituztela.

Eta alderantziz, daitekeena da enplegu, etxebizitza, osasun, kultura, informazio, eragin sare eta abarretik baztertuta egotea "adostasun pasiboa" deritzon jarreraz, moldagabeziako portaerak erakutsi gabe.

Arrisku handiko egoera gertatzen da, pertsonak moldagabeziako portaerak erakutsi gabe, ingurune multzo handi batetik "bazterturik" dagoenean (lan merkatua, prestakuntzako ikastetxeak –edo absentismo indize altua–, familian txertatze maila baxua, harreman ez formalen sare eskasa eta erreferentzia negatiboko irudiekin, hezkuntza ez formaleko baliabideak), eta eskasia edo gabeziak orokor bihurtzen direnean (oinarrizko ohitura falta, autoirritzi negatiboa, gizarteratzeko oinarritzko gaitasun, ezagupen eta jarrera eza, e. a.), eta baita harremanetarako arazoak dituen ere.

Arrisku ertaineko egoera gertatzen da, pertsonak oinarritzko alorretan eskasia edo gabeziak eduki arren (eskolako errendimendua, familia eta eskolako inguruneetako harremanak, autoirritzia, oinarritzko ohiturak, e. a.), oraindik normalizatutako inguruneraren batean txertatuta dagoenean (eta ezagupen, gaitasun, jarrera eta interes baikorrak dituen): prestakuntzan ari da edo lan egiten du, eta ikastetxera edo lantokira joaten da; familian nolabaiteko integratze maila mantentzen du; edo harreman sarea dauka eta bertan erreferentzia baikorreko irudiren bat; edo astialdian jarduera baikorren bat egiten du, e. a.

Arrisku baxuko egoera gertatzen da, pertsonak alorren batean eskasia edo gabezia puntualak dituen, baina beste guztietan garapen egokia, eta, ahultasuna izan arren, txertatze arazorik ez dagoenean.

Arrisku handiko eta ertaineko egoeretan beharrezkoa izango da eskuartze osorik eta jarraitua egitea (banakako hezkuntzako proiektuak). Arrisku baxuko egoeretan, esku hartzea partzialagoa izango da eta ez da beharrezkoa izango gehiegi luzatzea.

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa aurkezten dugunean, arrisku handi, ertain eta baxua kontzeptuez zabalago jardungo dugu.

- Hezkuntza/kultura izaerako **baliabideak** (hezkuntza ez formala) eta beste baliabide batzuetako hezkuntzako programak.

Kontsortzioko programek jarduera / proiektuen behin behineko eskaintza sortzen dute; bertan, arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteek ohitura eta gaitasun espezifikoak eskura eta gara ditzakete, normalizatutako eta egokitutako baliabideetan txerta daitezen.

Programak, beraz, gizarte eta hezkuntzako eta gizarte eta kulturako eskaintza konpentsatorio eta ez formala dira neurri handi batean, baina ez hori bakarrik.

Programek, hala ere, izaera egonkorra duen hezkuntza eta kultura eskaintza normalizatua (herritar guztiei zuzendua) eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitutakoa sustatzen dute. Kontsortzioaren beraren eskaintza izaera egonkorrekoa balitz, gizarteratze ikuspuntuari uko egitea litzateke.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Hezkuntzako eskaintzaz hitz egiten dugunean, barne sartzen ditugu beste sistema batzuetako zerbitzu eta proiektuak, osasun sistemakoak kasu (osasun heziketarako proiektuak anbulatorioetatik, e. a.).

Hezkuntzako alderdiak azpimarratzea Kontsortzioaren helburuari lotuta dago, hau da, adingabeen hezkuntzako prozesua indartzeari eta arrisku egoeran dauden gazteen emantzipazio prozesua sustatzeari.

Hautzaroan eta nerabezaroan geroko emantzipazioaren oinarriak jartzen dira, hezkuntza formal eta ez formaleko inguruneetan. Garai horretan, bada, adingabearen hezkuntza funtsezko lau inguruneetan garatzen da: familia, eskola, hezkuntzako baliabide ez formalak eta kidekoen taldeak.

- Zerbitzu **sistemetan** esku hartzea funtsezkoa da, sistemen barruan goitik behera eta behetik gorako aldaketak ezarri behar direla, eta sistemaren zatia diren isolatutako baliabideetan esku hartzea nahikoa izaten ez dela zinez uste badugu. Gainera, sistema bakoitzeko baliabide normalizatuaren eskaintzan (herritar guztiei zuzendutakoak) egokitzapenak bultzatu, eta, aldi berean, hezkuntzan behar bereziak dituzten kolektiboen arretarako baliabide espezifiko edo espezializatuak –sistemen barruan– ahalik eta gutxien garatu behar dira.

Sistemetan esku hartzeari dagokionean, Kontsortzioak bi ekintza mota egin ditzake:

- Batetik, Kontsortzio gisa, eta Kontsortzioko Batzorde Teknikoaren partaide diren departamentuetako teknikarien bitartez, hautemandako premiak, gomendioak eta orientabideak sistemetara eramatea.
- Eta bestetik, sistemaren barruan edo sistemen artean, prestakuntzako ekimenak bultzatzea eta, horien bidez, sistemetan pixkanakako aldaketak egitea edo zerbitzu sistemen artean lankidetzak kultura sortzea.

3.4. Kontsortzioak garatutako ekintzen helburuak

Arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzenduak

Prestakuntza Okupazional alorrean

- Ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak bereganatzea, lanpostuetara iristeko eta araututako prestakuntzako programetan sartzeko, gizarte bermeko, lanbide hastapen edo prestakuntza okupazionalen programen bitartez.

Heziketa Konpentsatorio alorrean, zentzu zabalean

- Ezagupen, gaitasun eta jarrerak bereganatzea, beste eginkizun eta betebeharrak sozial batzuk era autonomoan egiteko (bikotekide, aita/ama, kontsumitzaile, herritar, e. a. izateko).

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Inguruneetan hobeto txertatzea (familia, harreman informaleen sarea, haur eta gazteei zuzendutako hezkuntzako baliabide eta programak, formalak eta ez formalak), gaitasun orokor eta espezifikoak bereganatuta.

Gizartekotzeak hainbat alderdi ditu elkarri eusten diotenak, hala nola, arauak, baloreak, ohiturak eta jarrerak barneratzea (inkulturazioa), edo ingurune, baliabide eta harreman sareetan txertatzea eta, horren ondorioz, gizarteak onartutako eginkizunak betetzeko eta aldatzeko gaitasuna bereganatzea, eta azkenik bulkadak kontrolatzea eta bideratzea; gizartekotze baikorraren alderdiak dira, eta haien artean ezin da kausa-ondorio harremana ezarri.

Dena den, moldagabezia egoeran dauden adingabe edo gazteekin esku hartzeari ekiteko orduan, komenigarria deritzogu hasiera batean bulkaden kontrola eta bideratzea eta inkulturazioa lantzeari, jardueren eskaintzaren barruan (hautabidezko ingurune konpentsatzaileak); gero, izaera ez formaleko ingurune, baliabide eta harreman sareetan txertatzeari; eta azkenik, prestakuntza okupazionalako proiektuen bidez, enpleguetara iristea bultzatzeari.

Baliabide, sistema eta komunitate alorrean orokorrean

- Eskumenak lortzea baztertze edo desabantaila egoeran dauden adingabe eta gazteak sartzea bultzatzeko.

Baztertuta dauden pertsona eta kolektiboak herritar guztiei zuzendutako baliabide eta programetan sar daitezen, talde horien ezaugarri espezifikoak egokitutako baliabideak sortu behar dira, edo jadanik dauden baliabideak haiei egokitu behar dira.

- Komunitatea orokorrean, baliabideak eta sistemak ohartaraztea adingabe eta gazteek eta haien familiek bizi izandako baztertze eta desabantaila arazoez; arauak, eginkizun sozialak, e. a. askotariko bilakatzea eta malgutzea, baztertutako kolektibo, gutxiengo eta azpikulturen gizarteratzea aintzat hartuta, eta haien ikuspegia arauak eranstea.

Gizarteak onartutako betebeharrak eta eginkizunak betetzearen ondorioz, betebeharrak berriak sortzen dira eta eginkizunak beste modu batez banatzen dira, baztertze edo desabantaila egoeran dauden gutxiengoak edo pertsonak kontuan hartuta. Inkulturazioak, ikuspegi bera aplikatuta, arauak askotarikoak izatea eta malgutzea dakartza.

Kontsortzioko programen helburua, beraz, pertsona edo taldea gizartekotzea ahalbidetzen duen inguruari egokitzea da, lehen aipatutako hiru ikuspegietatik (kultura barneratzea eta kultura sortzea, betebeharrak eta eginkizun sozialak ikastea eta askotariko bilakatzea, bulkadak kontrolatzea eta bideratzea).

Helburu horrekin, arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzendutako eskuartzea garatzen du, eta normalizatutako ingurune konpentsatzaileak sustatzen ditu, adingabe eta gazte horiek hiru maila horietan ikasi ahal izateko; horrez gain, erakundeen **barruan** eta erakundeen **artean**, hezkuntza eta gizarte izaerako planak, programak eta proiektuak kudeatzen ditu, gizarte eta hezkuntzako edo soziokulturalak diren baliabide normalizatuak eta enpleguak igarotzea ahalbidetzen dutenak.

Kontsortzioak erakundeen arteko izaera dauka, eta erakundeen arteko ekimenak sustatzen ditu, kasu guztietan.

Kontsortzioak garatutako programak, praktikan eta orain arte, sistemaren batean kokatu izan dira eta, erakundeen arteko ikuspuntutik garatu badira ere, sistema bakoitzak burututako eskuartzea denen artean aztertzea eskatzen du.

Ahal den neurrian, sistemen arteko koordinazioa, batez ere maila lokalekoa, erakundeen arteko programetara eramaten saiatuko gara.

3.5. Kontsortzioaren eskumenak

1. Programak garatzea:

Prestakuntza Okupazionalako Programak
Heziketa Konpentsatorioko Programak (zentzu zabalean)

2. Gipuzkoako lurralde osorako programa ereduak ezartzea. Programak bermatzea.

3. Kontsortzioaren partaide diren erakundeetatik osoko ekimenak sustatzea, eta erakunde bakoitzak bere ikuspuntua eta eskarmentua azaltzea.

4. Proiektu eta programa guztiena izango diren materialak, prestakuntza planak, eta jarraipen eta ebaluaketako estrategiak sortzea.

5. Proiektuen hobekuntza jarraitua egiteko eta haien kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea; era berean, proiektuen garapena eta ezarritako kalitate parametroak bultzatzea.

6. Proiektu eta programen artean esperientziak, praktika onak, e. a. trukatzeko, eta hausnarketa egitea.

7. Proiektu eta programak eta horien arduradun eta teknikarien arteko ekintza koordinatuak sustatzea.

8. Zerbitzu eta programa berriak ikertzea eta sustatzea. Berrikuntzak heziketa konpentsatorio eta prestakuntza okupazional arloetan.

9. Proiektu europarrak bultzatzea.

10. Finantzaketa iturriak bilatzea.

11. Hezkuntza eta gizarte sistemetan aldaketak bultzatzea; osasun alorrean heziketako programa egokituak sustatzea; lan merkatuan egokitzapenak egitea; herritar guztien baloreak eta jarrerak garatzea (errespetua ezberdintasunari, tolerantzia, ...), eta aldaketak arauetan. Sistemei aholkuak ematea.

12. Kontsortzioak sustatutako programen artean arreta jarraitua eskaintzea, helburuak, hartzaileak eta programetan ezarritako bizitza zikloaren egoera aintzat hartuta.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

13. Hezkuntza ez formalean eta prestakuntza okupazionalen plangintza estrategikoa egitea.

Eta, orokorrean, sustatutako proiektu eta programen artean eskalako ekonomiak garatzea.

3.6. Nori zuzendutakoak dira Kontsortzioak sustatuko ekintzak?

- Hezkuntza formal eta ez formaleko ikastetxe eta baliabideak
- Hezkuntza Formala (hezkuntza sistema)
- Araitutako Hezkuntza
 - Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Lehen, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak.
 - Lanbide prestakuntzako zentroak.
 - Araitutako Hezkuntzako ikastetxeak orokorrean.
- Hezkuntza ez arautua
 - Lanbide hastapen zentroak
 - Prestakuntza okupazionalen ikastetxeak
 - Helduen Hezkuntzako Ikastegiak
 - beste batzuk.
- Hezkuntza ez formala (hezkuntza sistema eta kultura sistema)
 - Gazteentzako hornikuntza eta publiko zein pribatuak diren beste ikastegi soziokultural batzuk (kultura sistema)
 - Udaletako kultur proiektuak (kultura sistema)
 - Hezkuntzako eta gizarte proiektu normalizatuak inguru irekietan
 - Eskolaz kanpoko jardueretako proiektuak (hezkuntza sistema/kultura sistema)
- Komunitateko gizarte zerbitzuak
- Anbulatorioak (osasun heziketarako programak)
- Komunitateko beste zentro eta zerbitzu batzuk
- Baztertze edo desabantaila egoeran dauden pertsonak edo taldeak berak, gutxiengoak.

Hezkuntza sistemari dagokionez, Inguru Irekiko Hezkuntzako Plana hezkuntza formaleko munduarekin lotu dezakegu hurrengo legezko xedapenen arabera:

1. 1/1990 LEGE ORGANIKOA, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Ordenazio Orokorrari buruzkoa (L.O.G.S.E.), Bosgarren Titulua, hezkuntzan ezberdintasunak konpentsatzea arautzen duena.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

2. 1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, 3. 1 artikulua.
3. 118/1998 DEKRETUA ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatzen duena.
4. AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.

Legezko xedapen horietatik zati batzuk aukeratu ditugu; hain zuzen ere, Inguru Irekiko Hezkuntzako Plana eta Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa eskolarekin lotzeko beharra arrazoitu eta bermatzen dituztenak:

1. "... Hezkuntzako eskubidea gauzatzeko orduan, berdintasun printzipioa eraginkorra izan dadin, aginte publikoek izaera konpentsatorioko ekintzak garatuko dituzte gutxietsirik dauden pertsona, talde eta lurraldeei zuzendurik, eta horretarako behar diren diru baliabideak emango dituzte (63 Artikulua, Bosgarren Titulua - L.O.G.S.E.).
 2. Euskal eskola publikoa, "... anitza, elebiduna, demokratikoa da, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea". (Euskal Eskola Publikoari buruzko LEGEA, 3.1 artikulua).
 3. "... eskolara egokitzeko zailtasun handiek sortutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ...".
 - "... ikasle horiei erantzuna emateko hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu lankidetzan aritzeko foru aldundiekin eta toki-korporazioekin, eta bai irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin eta erakundeekin ere..." (118/1998 DEKRETUA).
 4. Eskolako inguruneari dagokionez, ikasleak moldagabezia egoeran egotea, eskola absentismoan eta hezkuntzako ingurunean harremanak izateko zailtasunean islatzen dena, ...
 - Familiak eta komunitateko beste batzuk ere parte hartzera bultzatzea...,
 - Udal-administrazioekin, edo foru-administrazioekin bestela, lan-programa batzuk egitea piperren aurka egiteko ...
- (AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena).

Hezkuntza ez formalaren arloari dagokionez, inguru irekiko gizarte eta hezkuntzako programak eta baita ere hezkuntzako astialdiko taldeak, hezkuntza sistemaren barruan daude, ez gizarte zerbitzuetako sistemaren barruan.

Hala ere, kaleko hezitzaileak gizarte zerbitzuetako sistemaren barruan daude, arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteekin eta baliabideekin lan egiten baitute, adingabe eta gazte horiek normalizatutako baliabide eta zerbitzuetan (herritar guztiei zuzendutakoak) txertatzen saiatuz.

Gizarte zerbitzuen barruan garrantzia daukan lana arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteei normalizatutako baliabideetara igarotzen laguntzea da; horretarako, hezkuntzako hautabide iragankorrak eskaintzen zaizkie eta normalizatutako baliabideekin lan egiten da, adingabe eta gazte horiek gizartera daitezen bultzatzeko.

Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen hezkuntza ez formala Kontsortzioak garatutako eskuartzearen estrategia nagusienetako bat da, eta Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programan garrantzitsuena.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Hezkuntza ez formalean, kaleko hezitzaileez gain, familiek, bizilagunek, boluntarioek eta komunitateko hezkuntza ez formaleko baliabide eta programa publiko zein pribatuek dihardute, elkarren artekoa den hezkuntzako erantzukizunaren ikuspuntutik abiatuta. **Eta horiek guztiak inguru irekiko hezkuntzako eragileak dira.**

Horrela bada, Kontsortzioa eta Programa koordinatu egiten dira kultura sistemako hezkuntza ez formaleko beste baliabide normalizatu batzuekin, herritar guztiei zuzendutako hezkuntza baliabide formalekin (hezkuntza araututako eta helduen hezkuntzako zentroak) eta espezifikoekin (lanbide hastapen zentroak, prestakuntza okupazionala), eta hezkuntzako programak garatzen dituzten beste zerbitzu sistema batzuekin.

Ikusten denez, Kontsortzioak sustatutako ekintzetan dihardutenak, nagusiki, maila lokaleko erakundeak dira, publikoak nahiz pribatuak, haur eta gazteen arretarako neurri batean formalizatutako sarea, Kontsortzioko ekintzak, gehienbat, arrisku eta moldagabezia egoeran dauden haur eta gazteen hezkuntzako arretari zuzenduak badira ere.

3.7. Kontsortzioaren ekintzak Heziketa konpentsatoriorako

Kontsortzioa ondoko puntuetan oinarritzen da, Heziketa Konpentsatorioan ezartzen dituen programa eta proiektuen beharrak zehazteko:

- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteek lan munduan txertatzeko dituzten arazoak.
- Hezkuntzako eskuartzearen barruan –edo bestelako eskuartzearen barruan– ez dauden adingabe eta gazteak.
- Adingabe eta gazteen bizitzan iragaite edo "krisi" garaiak (jaiotza, eskolatzea, nerabezaroa, gaztarotik heldutasunera iragaitea).
- Hezkuntzakoak izan daitezkeen arloak, profesionalizatutako hezkuntzako edo bestelako eragilerik ez dutenak.
- Arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitu ez diren hezkuntzako baliabide edo programak.
- Baliabide eta sistemen artean lankidetzan jarduteko beharrak.

Orokorrean, eskumen argirik ez daukaten edo hutsuneren bat duten alderdiak izango dira, eta gaur egun berritzaileak diren programak sortuko dituzte. Programen esperimentazioari esker, eta behin programak alderatuta, normalizatu eta erreferentzi puntu bihurtuko dira eta, aurrerantzean, maila lokaleko zerbitzu sistemaren batean sartuko dira. Dagoeneko adierazi dugun bezala, Kontsortzioaren zereginetako batzuk programak berriztatzea, era adostuan berdintzea edo estandarizatzea, eta finkatzea dira.

Premiak zehazteko azaldutako oinarrien arabera egin daitezkeen programa motak:

- Prestakuntza okupazionalako programak
- Prestakuntzako ikaste programak
- Heziketa konpentsatorioko programak, zentzu zabalean

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

- Hezkuntza formal eta ez formalaren arloko programak
 - Arreta Goiztiarreko programak
 - Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa, komunitateko gizarte zerbitzuetatik (aurrenerabezaro eta nerabezaroa bereziki hartzen dituen)
 - Heldutasunera iragaiteko programak.
- Haurrei emandako tratu txarrak eta abandonua hautemateko eta konponbideei ekiteko programak

3.8. Ekintzak gauzatzen diren ingurua

- Hezkuntza formaleko ikastetxe eta baliabideak (hezkuntza ez formaleko proiektuak)
- Hezkuntza ez formaleko ikastegi eta baliabideak
- Hezkuntzako programak dituzten komunitateko beste zentro eta baliabide batzuk
- Kalea
- Bizilekua
- Bestelakoak

Esku hartzea hartzaileek eguneroko bizimodua duten lekuetara eramateko joera dago. Arrisku egoeran dauden nerabe eta gazteen kasuan, kalea, hain zuzen. Modu horretan, baliabideak erabiltzaileengana hurbiltzen saiatzen gara, eta kalea edo komunitatea beste hezkuntzako esparrutzat hartzen ditugu, berezko zentzua duena.

3.9. Gizarte Ekintza eta Heziketa Konpentsatorioaren eredua, Kontsortzioak sustatutako ekintzen oinarri

Dagoeneko azaldu ditugu Kontsortzioaren gizarte ekintzaren eta heziketa konpentsatorioaren ereduen ezaugarri batzuk.

Pertsonak eta taldeak gizartekotzea hezkuntzako lanaren oinarria da. Gizartekotze baikorrak inkulturazioa (balore, ohitura, arau eta abarrak nagusi diren ingurua barneratzea), eginkizun soziala ikastea (helduen betebeharrak: ama/aita, langile, herritarra izatea) eta bulkadak kontrolatzea esanahiak izan ditu tradizioz.

Horrela, gizartekotzea emaitza bezala hartuta, hezkuntzaren zeregina gizartearen ordena legitimatzea eta errepikatzea da. Baztertze egoeran dauden pertsona eta taldeen kasuan, konformismo pasiboaren jarrera hartzera bultzatuko lituzke: "Ez daukat kultura, titulu, lan, osasun, etxebizitza, ..., eskuratzerik, baina balore, ohitura eta arauak nagusi diren inguruan parte hartzen dut, aita, herritar, ..., eginkizun sozialak betetzen ditut, eta nire bulkadak kontrolatzen ditut".

Jakina, onargarria da hezkuntzaren funtzioa ordena soziala "mantentzea" izatea; baina, ez da onargarria izango baldin eta ordena mantentzen duen bitartean, baztertze edo desabantaila egoeran dauden pertsonen ikuspegitik, gutxiengoaren ikuspegitik, hain zuzen, orden hori aldatzen badu. Legitimazio demokratikoaren oinarrian gehiengoaren erabakiak errespetatzea dago, baina baita ere, gutxiengoaren gizarteratzeko ahalegina.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Inkulturazioaren ondoan, arauak aldatzeko edo zabaltzeko aukerak egon behar du, ezberdintasunei errespetu edo tolerantzia zor zaiela onartuta, kulturarteko gizartea lortzeko. Eginkizun sozialekin batera, horiek askotarikoak izateko eta aldatzeko aukerak egon behar du (har dezagun, adibidez, etxeko betebeharren banaketa nola egiten den sexua kontuan hartuta). Bulkadak kontrolatzea bulkadak bideratzea bezala planteatzeko aukerak egon behar du.

Azken batean, kultura, informazioa, lana, e. a., demokratizatzeari ari gara. Hortaz, parte hartzea hezkuntzaren eta lan sozialen oinarri bihurtzen da. Aberastasuna ez ezik, informazioa, eragina izateko gaitasuna, eta abar ere birbanatzean dago gakoa. Are gehiago, seguruena ezinezkoa da aberastasunaren birbanatze garrantzitsua egitea boterearen birbanaketa egin gabe.

Gizarteratzeko bideak askotariko bilakatzea pertsonaren zentraltasunean eta banakoari, gutxiengoari, eta abarri ematen zaien balorean oinarritzen da; baita ere, pertsonak eta taldeak beren bizitza bideratzeko duten eskubidean (familia eredu, lanari ematen zaion garrantzia, lanbide orientazioa, e. a.), eta besteen eskubideak errespetatzek jartzen dituen mugetan.

Hau da, beraz, planteatu dugun sozializazio kontzeptuaren oinarria. Ezin dugu gizarte ekintza bideratu pobrezia homologatzera eta, horretarako, nagusi den pertsona, familia, gizarte ereduak inposatzea bultzatu. Askoz garrantzitsuagoa izango da, beste balore batzuk, beste erreferentzi inguru batzuk, e. a. dituzten pertsona eta taldeen ekarpenak aintzat hartuta, ereduok garatzea.

Esku hartzeak duen helburu nagusia banakoak bere sozializazio helburuak eta gizarteratzeko bidea erabakitzeko eskubideari, alde batetik, eta elkarbizitzaren funtsezko mugei, bestetik, aldibereotasuna ematea da eta, horrez gain, banakoa normalizatutako baliabideetan sartzea; horregatik, hezitzaileen funtsezko betebeharra bitartekoa izatea da, eta esku hartzeko tresna garrantzitsuena negoziatzia.

Bestalde, zerbitzuen erabiltzaile eta hartzaileen premiak zehazteko orduan (sentitutako edo hautemandako premiak, adierazitakoak, alderatutakoak eta normatiboak), oinarritzkoa da bakoitzak bere bidea aukeratzeko eskubidea izatea. Eta hori inplikatzeko estrategia baina gehiago da.

Teknikariek eta politikariek, arauen arabera premiak (arauaren edo izan behar denaren arabera) definitzen dituztenek, ezin dute beretzat hartu premiak definitzen dituzten eragile bakarrak izatea –gizarte ekintzaren eredu hierarkiko edo teknokratikoa bultzatuz, eta jakiteak (lehenengoen kasuan, eta jakite neutroa baloreen ikuspuntutik soilik) edo daukaten ordezkartza demokratikoak (bigarrenen kasuan) ematen dieten legimitateaz–. Baloreen ikuspuntutik, ez dago neutroa den gizarte ekintzarik, eta herritarren partehartzeak ordezkarien legimitate demokratikoa indartu baizik ez du egiten.

Herritar aktibo eta autonomoak heztea bultzatu nahi dugu, eta esku hartzea pertsonak eta baliabideek jadanik dituzten gaitasunak garatzera zuzentzea (sustapena), akatsak kroniko bilakatu edo sor daitezen ekiditea baino areago (prebentzioa).

Ildo horretan, funtsezkoa litzateke baliabideen kudeaketa gazteei, komunitateko pertsonari ematea, eta autogestioa, antolatutako boluntario multzoa zabaltzea, norbanakoez gain taldeen gaitasunak ere garatzeko.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Beraz, badago elkarren arteko hezkuntza erantzukizuna, eta garatu beharrekoa da; eta erantzukizun hori ez da maila lokalean esku hartzen duten sistema eta baliabideena soilik, baita ere familia, bizilagun, herritar, komunitate osoarena, eta banakoarena; banakoak, gainera, izan behar du –edo berriro izan behar du– bere hezkuntzako prozesuaren arduradun nagusia. Erantzukizunaz ulertzen badugu banakoaren premiei eta arazoei irtenbidea emateko gaitasuna – ahalmena, hortaz–, emana diogu kontzeptuari dagokion esanahia.

Negoiazioa edo bitartekotza elkarren arteko hezkuntza erantzukizun printzipio horretan oinarritzen da eta, baita ere, pertsonaren bizi inguruaren hezkuntzako funtzioan eta inguru ez formaletako funtzioan.

Bestalde, gure ikuspegitik, Estatuaren erantzukizuna eta gizartearen erantzukizuna osagarriak izateaz gain, elkarren beharra ere adierazten dute. Baztertze arazoei eman beharreko erantzunen osagarritasun hori garatu nahi dugu, beraz, eta pertsonaren bizi ingurutik hurbil dauden erantzunak bultzatu (solidaritaterako berezko formulak, lurraldeko boluntarioak, autolaguntza, ...).

Gaitasun ereduak eragin handiagoa izan nahi du pertsonen bizi dituzten egoerei aurre egiteko gaitasunetan dituzten gabeziak baino, ikuspegi baikorragoa emanez –murriztailea ez dena eta inor gutxietsi edo biktima egiten ez duena.

Edonola ere, baztertze egoeran dauden pertsonak eta taldeak ez gutxiestea edo biktima ez bihurtzea ez daude pertsonarenganako konfiantzaren eta pertsonaren ahalbideen baitan soilik, hori ikuspegi inozoegia litzateke; esku hartzeak "sorburuetara" hurbildu behar du, baztertze egoera objektiboak aldatu behar ditu.

Gaitasunak dituen pertsonak edo taldeak inguru baztertzailean –hau da, gaitasun horiek onartzen ez dituen inguruan, pertsonari edo taldeari gaitasunak gauzatzen uzten ez dion inguruan–, baztertutako pertsona edo taldea izaten jarraituko du. Saihestu egin nahi dugu pertsonak gaitasun, ezagupen, jarrera eta interesak gara ditzan normalizatutako inguruneak ez diren hautabidezko ingurune konpentsatzaileetan soilik.

Gaitasunak ahalik eta inguru gehienetan et ahalik eta inguru normalizatuenetan gauzatuz garatzen dira. Betebehar edo eginkizun sozialak betetzeak, norberaren kontzeptu baikorraren garapenarekin zuzenean lotuta, gaitasun zehatz batzuk normalizatutako gizarte inguruan gauzatzea esan nahi du.

Heziketa konpentsatorioko ekintzak, eta halaber baztertze edo desabantaila egoeran dauden pertsona eta taldeekin garatzen den gizarte ekintza orokorrean, paradoxaren barruan egoten dira: gabeziak orekatu behar dira gabeziak sortzen dituen inguruan.

Horregatik, Kontsortzioko programak aldi berean pertsonen eta baliabideen zuzentzen dira, eta heziketa konpentsatorioko programak direnez, sustatzaileak dira; pertsonen gaitasuna eta ahalmena indartzen dituzte, eta baliabideen malgutasuna eta egokitzapena, gizarteratzeko bideak askotarikoak izatea, eta abar bultzatzen dituzte.

Hau da, izaera prebentibo eta sustatzaileko programak dira, arrisku egoeran edo moldagabezia egoeran dauden herritarrei zuzenduak. Lehenago esan dugunez, baztertze eta desabantaila (ahultasuna) egoerak nahastuta egotea lehenetsunerako irizpide nagusia da.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

Irizpide horrek dakar gizarte politikak eta ongizate estatua gidatzen dituen birbanaketaren printzipioa sistema guztietako gizarte ekintzetara eramatea (gizarte zerbitzuak, kultura, hezkuntza, osasun sistema, e. a.).

Bigarren mailako prebentzio programak lirateke, nori zuzenduak diren kontuan hartuta; baina, pertsonak, familiek, baliabideak, komunitateak, eta abarrek dituzten gabeziak kroniko bilaka daitezten saihesteko asmoa baino zabalagoak dira programa horien helburuak.

Inguru Irekiko Hezkuntzako Planaren bidez, adingabe eta gazteen moldagabezia prebenitu eta gainditu nahi dugu, heziketa konpentsatorioko ekintzak eginez; ekintza horiek izaera sustatzailea dute, argi eta garbi, eta adingabe eta gazteei ez ezik, normalizatutako ingurune konpentsatzailea garatzera ere zuzenduak dira.

Hortaz, alderdi baikorrari –gizarteratze alderdiari– begiratuta baloratu behar da, nahi ez diren eta ekidin ditzakeen emaitzei soilik begiratu gabe. Bestela, jadanik definitu bezala, konformismo pasiboaren jarrerak gara genitzake.

Programak hobeto garatzeko, beren izaera prebentibo eta sustatzaileak ondokoa eskatzen du:

- a) ingurune lokalean eta komunitarioan kokatuta egotea;
- b) deszentralizazioa, erabiltzaileek eta komunitateak parte hartzea proiektuak eta programak diseinatzen, gauzatzen eta baloratzen;
- c) sare bakoitzaren barruan eta zerbitzu sistema guztietako lehen mailako arreta sareen artean (hezkuntza, osasuna, kultura, gizarte zerbitzuak) koordinatzea.

Baztertze edo desabantaila arazoen izaera konplexuak eta elkarren arteko harremanak Kontsortzioak bultzatzen duen erakundeen arteko ekimena eskatzen dute. Nahiz eta ekimen hori erakundeen arteko programetan ez gauzatu, esku hartzea sistemen artean azertu behar da. Ez baita nahikoa lehendik zeuden proiektuen koordinazio hutsa bultzatzea.

Heziketa konpentsatorioa hezkuntzako ekintzen multzoa da, pertsona/taldea gizartekotzea ahalbidetzen duen inguruari egokitzea bultzatzen duena, alderdi hirukoitzaren ikuspuntutik:

- bulkadak kontrolatzea eta bideratzea;
- lan munduan txertatzea eta beste gizarte eginkizun batzuk betetzea bizitzan zehar; baita ere, beste eginkizun batzuk sortzea eta beste betebeharrak batzuk banatzea (gizarte eginkizunak dibertsifikatzea, aldatzea eta hautabidezko eraketa banatzea);
- inkulturazioa eta arau, balore, ohitura eta abarren barruan eboluzionatzea (kultura sortzea).

Gabeziak berdintzeak haxe eskatzen du: pertsonari zuzendurik, hezkuntzan eta gizartean esku hartzea eta, halaber, izaera iragankorra duten hautabidezko ingurune konpentsatzaileak bultzatzea; baina, bereziki, "normalizatutako" inguruneak konpentsatzaileak izan daitezten bultzatzea (herritar guztiei zuzendutako baliabide eta zerbitzuen alderditik).

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

Inguru Irekiko Hezkuntzako Planaren hartzaileak diren adingabe eta gazteen arazoak ez dira, funtsean, gabezia pertsonalek sortuak, haien egoera pertsonalean eragina duen gizarte ingurune egokirik ez edukitzeak baizik (eskola, kidekoen artean, familia, e. a.). Izan ditzaketen ikasteko zailtasunak ez datoz haien mugetatik (intelektual, kognitibo, traumatikoak), ez horietatik soilik, behintzat.

Beraz, adingabe eta gazteekin esku hartzen denean, edo, beste modu batez, familia, ikastetxe, kultura zerbitzu eta gizarte-komunitateko baliabide, eta abarrekin esku hartzen denean, era koordinatuan egin beharko da.

Inguru Irekiko Hezkuntzako Planak maila lokalean esku hartzen duten zerbitzu sistema guztietako lehen mailako arreta sareetan eragin nahi du, bereziki azpitalde espezifiko batean; baina, normalizatutako programekin ere jarraitu nahi du, hau da, haurrei eta gazteei edo herritar guztiei zuzendutakoekin.

Ezin da normalizatutako programetatik isolatu, eta are gutxiago programa egonkorrak garatzeko baliabidea izan, hezkuntza, kultura, osasun sistemak eta beste batzuk baztertuta. Plana astialdi eta aisialdiari buruzko egitasmoez, hornikuntza soziokulturalaz eta udalerrian egindako komunitateko eskuartzeaz baliatuko da, eta bere erronka izango da burutzen ari diren jarduerak ez errepikatzea, ezta beste sistema batzuetako erantzukizuna ordezkatzeko ere (udalerriko gabezia soziokultural edo gizarte-komunitateko gabeziak behin behineko konpontzea badago ere).


Heziketa konpentsatorioko programak, hala ere, ezin dira baloratu gizarteratzeak³ dituen helburuak aintzat hartuta, programa horietarako gehiegizkoak baitira, baizik eta lehen aipatutako hiru sozializazio mailetan ondo ikastea ahalbidetzen duen pertsona/taldea eta ingurunea elkarri egokitzeko gaitasuna kontuan hartuta (ikastera bultzatzen duen ingurunea, hezkuntzako ingurune egokia sortzea). Programa horiek aukeren berdintasuna sustatzen dute eta ezin dute emaitzen berdintasuna bermatu (lana, etxebizitza, e. a. eskuratzea).

Heziketa konpentsatorioko programek aldaketa pertsonalak eta ingurunearen aldaketak bultzatu nahi dituzte, gizarte ekintza elkarreragilearen ikuspegitik, baztertze sozialaren arazoen askotariko ikuspegiez jabetuta, eta alderdi askotariko eskuartzea –ez hezkuntzakoa soilik– eskatuz.

Baztertze sozialaren arazoei askotariko ikuspegiak dauzkate eta, horren ondorioz, gizartearen esku hartzeko eredu elkarreragilea sortu behar da. Horrek esan nahi du, arrisku edo moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteei zuzendutako eskuartzearen kasuan, adingabe eta gazte **horiekin** (banako, talde eta kolektibo mailan) jardun behar dela, haien bizimodua garatzen den inguruneetako **partaideekin** (familia, eskola, kalea, komunitatea, e. a.) eta normalizatutako **baliabideekin** eta **sistemekin**; baita ere, adingabe eta gazte eta gizarte talde, baliabide eta sistemen artean, eta, adingabe eta gazteak alde batera utzita, guztien artean gertatzen diren elkarrekintzetan.

³ Gehienez ere, normalizatutako baliabideetan **txertatzea** lor dezakete. Gizarteratzea, lana, etxebizitza, kultura, hezkuntza, osasuna, informazioa, e. a. eskuratzea sistema guztien helburua da.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA



Jakina, programa bakar batek ezin ditu hartu gertatzen diren elkarrekintza guztiak. Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programatik une honetan lantzen ari diren puntuak aipatu ditugu funtsean, aurrerago ikusiko den bezala.

Kontsortzioak sustatutako eskuartzearen oinarrian dauden baloreak

Hona hemen, gizarte ekintzaren eredua deskribatzean zehaztu diren baloreen zerrenda. Balore eta printzipioak elkarri loturik daude, eta programaren kudeaketan ere eragiten dute.

- Dibertsitate balorea, ezberdintasunei errespetua.
- Pertsonaren, banakoaren, gutxiengoen balorea. Kulturartekoa.
- Gizarteratzeko bideak askotarikoak izatea, eskuartzearen pertsonalizazioa, "bezeroari orientabideak ematea".
- Pertsona eta kolektiboa erdigune gisa, malgutasuna erantzunetan programa guztietatik, e. a.
- Birbanaketa, gutxietsitako eta baztertze egoeran dauden kolektiboak. Berdintasuna aukeretan.
- Demokrazian sakontzea; deszentralizazioa; komunitateko eta abarreko erabiltzaileen partehartzea proiektu edota programak diseinatzen, gauzatzen eta baloratzen; sentitutako, adierazitako, alderatutako premiak eta normatiboak direnak bereganatzea.
- Kultura barneratzea eta kultura sortzea; gizarte eginkizunak ikastea eta askotariko bilakatzea/aldatzea, bulkadak kontrolatzea eta bideratzea.
- Herritartasun aktiboa. Autonomia, autogestioa, gaitasun eredua.
- Bitartekotza, negoziazioa, esku hartzea erdigune eta lan tresna gisa.
- Normalizazioa, gizarteratzea, prebentzioa eta sustapena (zerbitzu sistemak eta baliabide "normalizatuak" hartzen dituen lana herritar guztiei zuzendua).
- Pertsonaren ahalmena bizitzan zehar ikasteko.
- Gaitasun eredua.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

- Moldagabezia eta ikuspegi aniztasun arazoen jatorri soziala. Biktima ez bihurtzea, "sorburuetara", baztertze egoera objektiboen aldaketara orientatzea.
- Departamentuen eta erakundeen arteko elkarlana, alderdi aniztasuna.
- Hezkuntza denon erantzukizuna izatea, interesdunarengandik hasita.
- Erantzunen hurbiltasuna eta osagarritasuna (elkartasun, boluntario, autolaguntza eta profesionalen berezko arauak).
- Sareak antolatzea, talde erantzunak (lana taldeei zuzentzea).
- Inguruaren garrantzia hezkuntzan.
- Inguru ez formalek duten hezkuntzako ahalmen eta balioa.
- Emakumeari laguntzea, maila lokaleko enplegua sortzea, ingurugiroa hobetzea, ... (eragina).